

MURUA

Se sitúa en las primeras zonas llanas que forman las laderas Sur del Monte Gorbea, en terreno castañero, a una altitud media sobre el nivel del mar de 606 metros y a orillas de dos ríos, el Subialde y el Santa Engracia que se unen al Sur del pueblo y forman el Zalla.

MURUA

Gorbeia Mendiaren Hegoaldeko maldek eratzen dituzten lehen zonalde lauetan kokatzen da, Lurralde gaztainondotsuan, itsas mailatik batezbeste 606ren bat metroko altitudean eta bi ibairen ertzetan, Subialde eta Santa Engraziarenetan. Ibai hauek gero elkartu egiten dira herritik Hegoaldera, Zalla ibaia eratuz.

Múrua aparece citado por primera vez, dentro de los documentos actualmente conocidos, en el año 1257, con el mismo vocablo que ahora posee.

En la cumbre, o bien en su entorno, del alto que se encuentra al Oeste de Múrua, se asentó el despoblado de Murabe, restando de él solamente, el nombre que ha dado título al término.

Múrua fué durante el siglo pasado y principios de éste uno de los lugares más importantes y poblados de este municipio, alcanzando mayor explendor en la primera década de este siglo, consiguiendo una población de cerca de 170 habitantes, mientras que, en la actualidad solo son 53 los pobladores según el censo del año 1982.

Dada, su estratégica situación, al pie de las faldas del Monte Gorbea; ser uno de los caminos más frecuentados por los montañeros para la ascensión del Monte Gorbea; poseer gran cantidad de agua para su abastecimiento; estar regado su término por amplia red hidrográfica; junto con Apodaca y Echávarri-Viña, y Sarría en Zuya, es uno de los pueblos donde más viviendas-recreo se han construido, la mayoría de ellas localizadas en dos urbanizaciones: "La Tejera", y "Torre Múrua" en el pueblo en estudio.

El caserío de Múrua se ordena en dos barrios bien diferenciados tanto, por su ubicación, como por extensión. Así, mientras el barrio de Arriba ocupa la ladera del alto Santo Tomás, y se compone de un grupo de siete caseríos, dos de ellos algo separados del resto, que se encuentran apiñados, pero, aislados entre sí; el barrio de Abajo distribuye su caserío, en sentido logitudinal N-S, con una dispersión de sus distintos caseríos, asentados a uno y otro lado de los dos caminos o carreteras existentes y compuesto de alrededor de veinte caseríos.

El barrio de Arriba es el originario o más antiguo del lugar, todo él se halla en la margen derecha del arroyo Santa Engracia, conocido también como Kisalaga, por ser uno de los manantiales que lo forman, y actuar como uno de los elementos divisores del terreno perteneciente al lugar de Múrua.

Murua, gaur egun ezagutzen ditugun dokumentuen artetik, 1257an aipatzen da lehen aldiz eta gaur egun duen hitz berarekin.

Muruatik Mendebaldera aurkitzen den gainaren gailurrean, edo berorren ingurumarian, Murabe izeneko oiherra kokatu zen, baina gaur egun mugapeari titulua eman dion izena bakarrik geratzen da.

Iragan mendean zehar eta mende honen hasieretan ere, udalerriko lekurik garrantzitsu eta biztanle gehienekoetakoa izan zen Murua, denboraldirik ospetsuena mende honen lehen hamarkadan lortuz, zeren eta, orduan 150 biztanle edukitzeraino iritsi bait zen, gaur egun, 1982ko zentsuaren arabera, 53 biztanle besterik ez dituen bitartean.

Bere kokapen estrategikoarengatik, hau da, Gorbeia Mendiaren malden oinean, Gorbeia Mendira igotzen diren mendizaleek usuenik egiten dituzten bideetako batean, ur-kantitate handiekin bere burua hornitu ahal izateko, bere mugapea Apodaka eta Etxabarri Dibinarekin batera, eta Sarriarekin batera Zuian, sare hidrografiko zabal batek garastatua delako, opor-etxebizitza gehien eraiki direnetako herri bat dugu. Horietako gehienak bi urbanizaziotan aurkitzen dira: "La Tejera"n eta "Torre Murua"n.

Muruako etxeteria, bere kokapen eta hedadurarengatik oso ondo bereizten diren bi auzogunetan antolatua dago. Horrela, Goiko auzoak Santo Tomas gainaren maldako behe-zatia okupatzen duen eta zazpi baserriko etxe-talde batez osatua dagoen bitartean (hauetako bi multzo-moduko batean baino elkarrengandik aparte dauden beste gainerakoetatik zerbait urruntxoago). Beheko auzoak Iparraldetik Hegoalderako zentzu longitudinalean banatzen du bere etxeteria, bere baserri desberdinak nolarebait sakabanatuak dituela eta bertan aurkitzen diren bi bide edo errepideren alde banatara, hogei baserri inguruko kopuruan.

Goiko auzoa da jatorrizkoa eta bertako zaharrena, eta oso-osorik Santa Engrazia errekaren eskuin ertzean kokatzen da. Kisalaga bezala ere ezagutzen da erreka hori, bere iturburuetako bat hala deitzen delako eta Muruako herriskari dagokion lurraren elementu zatitzaile bezala ere jokatzen duelako.

Vista parcial de la zona central de Múrua.

Muruaren erdialdearen bista partziala.

El barrio de Abajo se asienta en el terreno que delimitan los ríos Santa Engracia y Subialde, en terreno perteneciente a la Comunidad de San Antonio, de la que son miembros los pueblos de Múrua, Larrinoa, Gopegui, y Ondátegui.

En este lugar de la Comunidad de San Antonio y en las inmediaciones de la ermita del mismo nombre, hoy día, convertida en parroquia por arruinarse la existente, empezó a principios del siglo XIX, por real permiso, una feria que duraba los ocho días siguientes a la fiesta de San Antonio, 13 de Junio.

Posiblemente, es a raíz de la concesión para la celebración de la citada feria y de la importancia que esta fué adquiriendo a lo largo de los años, lo que ocasionó la afluencia de numeroso público a su conmemoración, de manera que parte de aquella pudo quedarse y establecerse allí, como así lo confirma, el aumento de habitantes que experimenta a lo largo del siglo pasado y principios de éste.

Beheko auzoa, berriz, Santa Engrazia eta Subialde ibaiek mugatzen duten lurrean aurkitzen da, San Antonio Komunitateari dagozkion terrenoetan, Komunitate horren bazkide bait da Murua ere, Larrinoa, Gopegi eta Ondategirekin batera.

San Antonio Komunitatearen leku honetan eta izen bereko ermitaren inguruetan (bera da gaur egun parrokia, aurrekoak lur jo zuelako), Ekainaren 13ko San Antonio festaren ondoren zortzi egunez irauten zuen feria bat hasi zen egiten XIX. mendearen hasieran, errege-baimen eta guzti.

Beharbada aipatu feria egiteko baimenaren ondorioz eta ondorengo urteetan gero eta garrantzi handiagoa lortzen joan zelako, gero eta jende ugariago biltzen hasi zen bertan eta geratzen eta finkatzen ere jende horren parte bat, eta agian horrexegatik esperimentatuko zuen biztanle-gehikuntza ere iragan mendean zehar eta honen haiseretan.

Como hemos dicho anteriormente, es el barrio de Arriba el originario y, como tal, era poseedor del templo parroquial hasta el año 1936 en que fué totalmente derruido. Ocupaba la explanada que se sitúa inmediata al caserío nº 26. López de Guereñu dice de ella: "Era de fábrica de mampostería, con una sola nave cubierta con bóveda de medio cañón muy apuntada. Puerta románica parcialmente tapiada su arquivolta. Espadaña a los pies que servía de campanario".

Otro de los edificios que se arruinó y que hasta hace unos cuarenta años aún quedaban restos de algunos de sus lienzos, fué un palacio que leyendo a Becerro de Bengoa comenta: "En Múrua se ven los restos de un viejo palacio, tal vez el de alguno de los descendientes de aquel Martín López de Múrua, origen y el mayor del linaje de Oñaz y cabeza del bando Oñacino, abuelo de los poderosos Lazcanos de Guipúzcoa, cuyo Murua nació en aquella aldea".

La situación de este palacio era a nivel algo inferior al de la iglesia, en el término denominado "el palacio", recordando la situación de aquél, es decir, a unos 60 metros del segundo puente más al Sur que une ambos barrios, y a mano derecha del camino.

Comencemos nuestra exposición caseríl por el barrio de Arriba. Para acceder al mismo, partimos del camino que surge frente a la fuente pública del barrio de Abajo y lleva dirección Oeste. Una vez caminado unos 150 metros llegamos al puente, comentado anteriormente, sobre el río Kisalaga, Amezua o Santa Engracia. Una vez atravesado el puente de un ojo comienza una empinada cuesta, limitada, a ambos lados, por sendas tapias de mampostería recogida en seco que en algunos puntos sirve de muro soporte de los empujes que ofrece el terreno.

A mano derecha, antes de llegar a la bifurcación de caminos, se halla el término "el palacio", recordando la ubicación del mismo. Tomando el camino de la izquierda, lo primero que encon-

Lehen ere esan dugun bezala, Goiko auzoa da jatorrizkoa eta horrexegatik bertan kokatzen zen parroki eliza ere 1936. urtera arte, urte horretan zeharo erauzia izan bait zen. 26 zk. baserriaren ondoan aurkitzen den zelaiunea okupatzen zuen. Zera dio Lopez Gereñuk eliza honi buruz: "Harlangaitzezko fabrikarekin egina zen, nabe bakarrekoa, berau kainoi-erdi oso zorrotzeko ganga batek estaltzen zuela. Atea erromanikoa zuen, arkibolta erdi-takatuarekin. Eta ezpataina bere oinetan, kanpandorretzako eginkizunarekin".

Lur jo zuen beste eraikinetako bat eta orain berrogeiren bat urte arte oraindik bere hormetako batzuren aztarnak gelditzen zirena, jauregi bat izan zen. Begira zer komentatzen duen Bengoako Berceo-k berorri buruz: "Muruan jauregi zahar baten hondakinak ikusten dira, ausaz Martin Lopez de Murua haren ondorengoren batenak. Izan ere, aipatu pertsonaia hori, Oinaztarren leinuaren jatorria eta ahaide nagusia eta Oinaztarren bandoaren buruzagia izan bait zen, Gipuzkoako Lazkaotar boteretsuen aitona, eta honen Muruak auzoska hartan sortua izan behar du".

Jauregi honen kokapena elizarena baino zerbait beheratxoago aurkitzen zen, berorren kokapena gogoratuz "jauregia" izenarekin ezagutzen den mugapean, hau da, Hegoalderago bi auzoak elkartzen dituen bigarren zubitik 60ren bat metrotara, bidearen eskuinetara.

Goiko auzotik ekingo diogu gure baserri edo etxeen deskribapenari. Bertara joateko, Beheko auzoko iturri publikoaren aurretik abiatu eta Mendebalderantzako direkzioan eramaten duen bidea hartuko dugu. Behin 150en bat metro egin ondoren, lehenago ere aipatu dugun zubira ailegatzen gara, Kisalaga, Amezua edo Santa Engrazia ibaiaren gaineko zubira alegia. Eta begi bakarreko zubi honetatik pasa ondoren, aldapa malkartsu bat hasten da bi alboetatik lehorrean egindako harlangaitzezko horma banak mugatzen dutela eta leku batzuetan lurrak ematen dituen bultzadei eusteko lana egiten dutela.

Eskuinetara, eta bidegurutzera iritsi aurretik, "jauregia" izeneko mugapea aurkitzen da, berorren kokapena gogoratuz. Behin ezkerretarako bidea hartuz gero, eraikuntza berriko bi edi-

Corpulentas y poco agujereadas disponen sus fachadas las casas números 26 y 25.

Gorputz handikoak baina zulo gutxikoak agertzen dira 26 eta 25 zk. etxeen fatxadak.

tramos son dos edificaciones de moderna construcción; siguiendo, al otro lado del camino, se halla el caserío n.º 26, en cuya campa, delante de él, se levantaba el templo parroquial dedicado a San Andrés.

El caserío n.º 26, de notable volumen, lleva cubierta a tres aguas sin apenas voladizo de su alero. El aspecto que ofrece es el de un caserío adaptado a las nuevas técnicas constructivas en lo referente a construcciones auxiliares. En el edificio principal se refleja a simple vista la parte destinada a vivienda y la correspondiente a cuadras, pajar...

Más adelante y a mano izquierda, encontramos el caserío catalogado con el n.º 25, así mismo, de considerable volumen, presentando una enorme fachada, enmascarada, en parte, por la proximidad delante de ella de varios árboles

fizio dira lehenik topatzen ditugunak; aurrera jarraituz, eta bidearen bestaldean, 26 zk. baserria aurkitzen da, eta honen etxaurreko landan San Andresi dedikatutako parroki eliza altxatzen zen.

26 zk. baserriari dagokionez, nahiko bolumen handikoa izaki, hiru isuriko teilatuarekin da, teilategalik apenas duela. Eraikin lagungarriei dagokienez, berriz, eraikuntz teknika berrietara moldaturiko baserri bat dela ematen du. Eraikin nagusian oso erraz antzematen da zein den etxebizitzatara destinaturiko partea eta zein ikuilu, lasatategi, etab.etara destinaturikoa.

Aurrerago eta ezkerretara, 25 zk.arekin katalogatutako baserria topatzen dugu; nahiko bolumen handikoa da hau ere, fatxada oso handi batekin, baina etxaurrean duen ondo-ondoko baratzako zenbait frutarbolak parte bat ezkutarazi

Aspecto del caserío nº 27 con la fuente junto a él.

27 zk. baserriaren itxura, iturria bere ondoan duela.

frutales, que se sitúan, en el inmediato huerto delante de la casa; con el acceso descentrado y distinto tratamiento en su revoco, lo que hace suponer, que en otro tiempo haya podido albergar, dos viviendas.

La era, en el costado izquierdo, queda limitada por éste y la cabaña de dos plantas, perpendicular al alzado anterior, en su parte posterior.

En la entrada al huerto, cubierta por una sencilla cubierta a un agua y semioculto por la vegetación y tapia existente, se halla un elemental lavadero.

Siguiendo el camino, desembocamos en un cruce que se halla presidido por la bella y peculiar fuente pública del barrio de Arriba, muy frecuentada en épocas no muy lejanas, pero que, con la disponibilidad, hoy, de agua corriente en los caseríos, ha sentenciado a aquella, a ser objeto sin uso, lo que se traduce en abandono y mal estado de conservación.

egiten diotela; sarrera deszentratua du eta bere entokaduran tratamendu desberdina aurkezten du; horregatik, badirudi garai batean bi bizitzakoa izan zela edo.

Larraina, berriz, etxearen ezkerretara aurkitzen da, honek eta bi oineko etxordeak mugatzen dutela; etxordea, bere aldetik, perpendikularra da aurreko hormarekiko, bere atzeko aldean.

Baratzako sarreran, isuri bateko teilatu sinple batek estalita eta inguruko landaretzak eta pareta batek erediezkutaturik, ikuztegi elemental bat dago.

Bideari jarraituz, Goiko auzoko iturri publiko eder bezain berexiak janzten duen bidegurutze batean amaitzen dugu. Jende asko baliatzen zen iturri honetaz oraindik oso urrutira gabe, baina gaur egun, baserri bakoitzek bere ur korrontea duenez gero, inolako erabilerarik gabe egotera kondenatua dago, eta, ondorioz, abandonatua eta kontserbazio-egoera txarrean aurkitzen da.

Se trata de fuente denominada de aljibe, con pequeño espacio abovedado y a nivel ligeramente inferior al suelo del camino. Encima de la fuente se sitúa un bello y frondoso nogal, dotando al entorno, de lugar hospitalitario y fresco en los días calurosos de la época estival.

A través de las escaleras que se hallan en uno de los costados del arco de acceso a la fuente, se accede al solar, en que se levanta el caserío nº 27, que ostenta, notable volumen. Su fachada, al igual que las correspondientes a los caseríos que restan por describir de este berrio, se orientan al Sur, no así la de los dos descritos, que miran a Levante.

La zona de vivienda, correspondiente al caserío nº 27, ocupa la zona Levante y Sur del edificio, mientras que las cuadras y pajar ocupan la zona Oeste y Norte del mismo. Esta distribución viene condicionada, en parte, por la situación de la era y cabaña en la parte Oeste del edificio.

El caserío nº 28, detrás del anterior, de notable volumen, se construyó en el último año de la década de los setenta del siglo pasado. Presenta una distribución simétrica de huecos en su alzado principal, con buenos elementos sillares en esquinales y recerco de aquellos que despuntan sobre la mampostería del resto del alzado.

La era y la cabaña se sitúan en el costado izquierdo a nivel superior debido a la ubicación del caserío en terreno en ladera, lo que hace que se acceda al pajar, que se sitúa en la parte posterior del piso, directamente desde la era.

El horno de pan se halla en pequeña y elemental construcción anexa, a uno de los esquinales del alzado noble.

El caserío nº 24, construido en el mismo año que el anterior, es decir, en 1869 según reza en el dintel de su acceso, posee una distribución similar. El aspecto que ofrece éste es algo más humilde al carecer de recerco de sillería en sus huecos del piso y camarote. La era y cabaña se sitúan en su alzado Poniente. La sencilla cons-

Pozaderazko iturria deitzen den horietakoa da, espazio txiki gangatu batekin eta zerbait beheraxeago bidearen zorua duela. Iturriaren gainean, berriz, intxaurrondo lerden eta hostotsu bat kokatzen da, inguruneari halako giro abegitsu eta fresko bat emanez udako egun beroetan.

Iturrira sartzeko arkuaren albo batera aurkitzen diren eskaileretatik, 27 zk.arekin katalogaturiko baserria altxatzen den orubera pasatzen gara. Bolumen nahiko handikoa dugu baserri hau ere. Bere fatxada, auzo honetan deskribatzeko geratzen zaizkigun gainerako baserrienak bezala, Hegoalderantz orientatua dago; ez ordea horrela orain arte deskribatu ditugun bienak, horiek Ekialderantz emanten bait dute.

27 zk. baserriari dagokion etxebizitzako parteak edifizioaren Ekialdeko eta Hegoaldeko zona okupatzen du, ikuiluek eta lastategiak berorren Mendebal eta Iparraldekoa okupatzen duten bitartean. Banaketa hori, hein batean, larraina eta etxordearen kokapenak baldintzatua dago, etxearen Mendebaldean aurkitzen dira eta hauek.

28 zk. baserria, aurrekoaren atzean kokatzen da eta nahiko bolumen handikoa dugu hau ere. Iragan mendeko hirurogeitamarreko hamarkadaren azken urtean eraikia dugu. Bere baoak simetrikoki banatuak daramatza altxaera nagusian, harlanduzko elementu onekin kantoietan eta azpaduretan, gainerako harlangaitzezko fabrikatik nabarmenki gailentzen direla.

Larraina eta etxordea ezkerreko saihetsean kokatzen dira, goragoko maila batean, baserria bera aldapan eraikia dagoelako, eta horrexegatik, lastategirako sarrera, pisuaren atzekaldean kokatzen denez gero, larrainetik zuzenean egiten da.

Ogia erretzeko labeari dagokionez, berriz, altxaera noblearen kantoietako bati erantsita aurkitzen den eraikin txiki eta elemental batek babesten du.

24 zk. baserriak, aurrekoaren urte berean eraikia izaki, hau da, 1869an bere sarrerako atalburuan irakur daitekeenez, antzeko banaketa eskaintzen du. Honen itxura, ordea, zerbait apalagoa da, ez bait du harlanduzko azpadurarik, besteak bezala, pisuan eta ganbaran. Larraina eta etxordea bere Mendebaldeko altxaeran kokatzen

Tipologías idénticas muestran los números 28 y 24 con el recerco de los huecos de cantería y carpintería, respectivamente.

Tipologia berdin-derdinak erakusten dizkigute 28 eta 24 zk.ek, beren baoak harlanduzko eta zurezko azpadurekin dituztela hurrenez hurren.

trucción que sobresale de la esquina Poniente albergó al horno de pan.

Tomando el camino que lleva dirección Norte y deja al caserío anterior a la derecha, nos comunica con uno de los dos caseríos del barrio de Arriba que se hallan algo alejados del grupo principal.

El primero de ellos es el catalogado con el n.º 31. Nos presenta una diferencia notable con respecto a los anteriores, la disposición que ocupan la cabaña y la era son distintas. Así, mientras en los anteriores la cabaña se anexionaba a uno

dira. Mendebaldeko izkinatik kanporantz irteten den eraikin sinpleak ogi-labea eduki zuen garai batean.

Iparralderantz eramanez aurreko baserria eskuinetara uzten duen bidea hartuz, Goiko auzoko etxe-talde honetatik zerbait urrunduak aurkitzen diren bi baserrietako batera zuzentzen gaitu.

Horietako bat 31 zk.arekin katalogatu dena da. Ez du erakusten halako gauza berezirik aurrekoen aldean, etxordearen eta larrainaren kokapena izan ezik, hauek beste era batera antolatuak bait daude. Horrela, aurrekoetan etxordea

Repetida organización con el huerto inmediato a la fachada observa el caserío n.° 31.

Behin eta berriz errepikatzen den antolamendua erakusten digu 31 zk. baserriak baratza fatxadaren hurre-hurrean duela.

de los alzados laterales, en este caso, se halla separada del edificio vivienda, en su parte posterior y entre los que se sitúa la zona de trabajo.

El edificio vivienda en cuanto a técnicas constructivas y distribución entra dentro de la tipología usual en la zona.

albo-hormetako bati eransten zitzaion bitartean, kasu honetan etxebizitzatik aparte aurkitzen da, atzeko aldean, eta bi eraikinen artean lanerako lekua dutela.

Etxebizitzari dagokion edifizioa, eraikuntz tekniken eta banaketaren aldetik, eskualde honetan eman ohi den tipologiaren barruan sartzen da.



Doble habitación doméstica muestra el caserío n.° 30.

Etxe-bizitoki bikoitza erakusten du 30 zk. baserriak.

El caserío n.° 30, al Levante del anterior, lo forman el edificio principal y una serie de edificios complementarios o auxiliares, cabañas y cuadras que se sitúan de tal forma que determinan un patio interno, utilizado como zona de trabajo.

El edificio principal que ocupa la posición más al Este del conjunto, se levantó en el año 1864, según reza inscripción en el dintel de su acceso. Su tejado presenta cubierta a dos aguas con vertientes distintas, destacando por su gran extensión, la orientada al Norte.

La distribución de las zonas destinadas a vivienda y cuadra queda bien patente con la orientación del edificio: al Sur la vivienda y al Norte la cuadra y pajar, que por la prolongación de la vertiente correspondiente hasta una altura del suelo de unos tres metros, la superficie de muro expuesta al Norte, es mínima.

30 zk. baserria, aurrekotik Ekialdera, bastiza nagusiak eta beste zenbait eraikin osagarri edo lagungarrik eratzen dute, hala nola etxordeek eta ikuiluek, barne-barlaren antzeko bat eratzen bait dute hauek, lanerako leku bezala erabiltzen dena alegia.

Etxe-multzo honetako Ekialdeneko posizioa okupatzen duen eraikin nagusia, 1864ean jaso zen, bere sarrerako atalburuan dagoen inskripzioak dioskunez. Bere teilatua hedadura desberdineko bi isuriz eratua dago, Iparraldera ematen duena bietan handiena izaki.

Etxebizitzatara eta ikuilutara xedaturiko parteen banaketa argi aski geratzen den gauza da edifizioaren orientazioan: Hegoalderantz etxebizitza eta Iparraldera ikuilua eta lastategia; azken honen Iparralderako hormaren azalera oso txikia da, berorri dagokion teilategala hiru bat metrotako altueraraino jaisten delako.

Construcciones auxiliares del caserío n.º 30.
Puente sobre el rio Kisolaga.

30 zk. baserriko eraikin lagungarriak.
Kisolaga ibaiaren gaineko zubia.

Siguiendo el camino que transita delante de este último caserío, arribamos al puente de un solo ojo, de directriz en arco rebajado, sobre el río Kisalaga, Amezua o Santa Engracia que pone en comunicación a los caseríos más al Norte del barrio de Abajo.

Como hemos dicho al principio de la exposición de este lugar, el barrio de Abajo, más numeroso que el de Arriba, distribuye su caserío en la dirección N-S como más predominante y a uno y otro lado de los dos caminos principales o carreteras que en él se originan.

Vamos a comenzar nuestra exposición de este barrio de Abajo por los caseríos más al Sur del lugar e inmediatos al tercer puente sobre el río Santa Engracia y a uno y otro lado de la carretera que atraviesa al mismo.

Azken baserri horren aurretik pasatzen den bidetik jarraituz, Beheko auzotik Iparralderantzagoko baserriak komunikazioan ipintzen dituen Kisalaga, Amezua edo Santa Engrazia ibaiaren gaineko zubi begibakar eta arku beheratuko zuzentzailedunera iristen gara.

Herriska honen deskribapenari ekiterakoan esan dugun bezala, Beheko auzoak, Goikoa baino etxetsuagoa izaki, I-Hrako direkzioan banatzen du bere etxeteria, batez ere bertan sortzen diren bi bide nagusi edo errepideen alde banatara.

Beheko auzo honen deskribapena, herritik Hegoalderantzena eta Santa Engrazia ibaiaren gaineko zubiaren ondoan berori zeharkatzen duen errepidearen alde banatara kokatzen diren baserriekin hasiko gara.

Caserío Landaburu al inicio de Múrua con detalle de su dintel.
Caserío Lorea, antes ermita de Santa Engracia.

Landaburu baserria, Muruaren hasieran, bere atalburuaren xehetasunarekin.
Lorea baserria, Santa Engrazia ermita baino lehen.

El que se sitúa a la derecha, catalogado con el n.º 29, se construyó en el año 1853, según reza en el dintel de su acceso, a nivel más bajo que la carretera y separado del huerto delante de él, por pequeño pasillo de servidumbre.

La visión de frente que ofrece su simétrica y aseada fachada se vé aumentada por las alas que sobresalen del cuerpo principal a ambos lados.

El edificio, al otro lado de la carretera, ostenta el nombre de "Lorea" y alberga una vivienda de aspecto moderno, pero que, hasta no hace muchos años, ostentó el oficio de ermita cuyo titular fué Santa Engracia.

Eskuinetara aurkitzen dena, 29 zk.arekin katalogatua, 1853an eraiki zen, bere sarrerako atalburuan ipintzen duen bezala; errepidea baino beherago dago eta bere aurrekaldeko baratzatik apartatua bide-zor estu baten bidez.

Aurretik begiratuta bere fatxada simetriko eta txukunak eskaintzen duen ikusmira oraindik areagotu egiten da gorputz nagusitik bi aldeetara irteten diren hegalekin.

Errepidearen bestekaldean dagoen eraikinak "Lorea" izena darama eta itxura modernoagoko etxehizitza bat dela ematen du, baina oraindik urte asko ez dela arte Santa Engraziaren zaindaritzapeko ermita baten eginkizunarekin bete zuen.

A continuación llegamos a la bifurcación de carreteras que aglutina en su recorrido a los distintos caseríos que conforman el barrio de Abajo. Tomando la carretera de la izquierda, en su comienzo y a mano izquierda se encuentra el término de La Landa, que se halla poblado de robles y que va a dar nombre a los caseríos que se sitúan en sus proximidades, tales como los números 21, 20 y 8, este último, al otro lado de la carretera.

El edificio nº 8, con fuerte raigambre tipológica de los caseríos levantados hacia 1800, a través del balcón volado inmediato y protegido por el acusado voladizo del alero de la cubierta, fué levantado en el año 1796 según leemos en el dintel de su acceso acompañándose de cruz en relieve.

Como ya es habitual en estas unidades agropecuarias del ayuntamiento cigoitiano, delante del edificio principal se desarrolla el huerto cuya línea de separación queda marcada por vegetación arbórea acompañada de pequeño muro.

La colocación de los distintos edificios complementarios que conforman esta unidad agropecuaria determina un espacio interior o patio que hasta hace unos años fué la era o zona de trabajo.

Los números 20 y 21 así mismo disponen de amplias huertas delimitadas o cercadas por sencillo muro de mampostería.

Las casas números 20 y 21 disponen sus caballetes paralelos a la fachada, de tal manera que las vertientes orientadas al Norte alcanzan una gran superficie que en su lado más bajo queda a unos tres metros del suelo.

Las fachadas correspondientes a ambos presentan distribución simétrica de huecos con recerco de piezas sillares en sus plantas bajas y de carpintería rasante en sus pisos. El dintel del caserío nº 20 lleva inscripción del año de su construcción: 1796, aunque posiblemente su primitiva construcción presentara otra tipología distinta a la actual y más acorde con lo que se efectuaba en aquellos años, tal como la del caserío nº 8, que coincide en el mismo año.

Ondoren, bere ibilian Beheko auzoa eratzen duten baserri desberdinak batzen dituen errepidearen bidebanatzera ailegatzen gara. Ezkerreko errepidea hartuz, beronen hasieran eta ezkerretara, "Landa" mugapea aurkitzen da, haritzez populatua eta bere inguruetan kokatzen diren baserriei izena emango diena, hala nola 21, 20 eta 8 zenbakiei, errepidearen beste aldera azken hau.

